



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 16a

53. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-24/MOC-00050. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere kirol plangintzan sar dezan osasun mentalerako arretaren ikuspegia, kirol arloko profesionali zuzentzen dizkien ekintzetan. Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00051. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan itxarotezerrendak murrizteko plan integral bat aurkez dezan, bere barne hartuta egiturazko neurriak abiaraztea. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (4. or.).
- 11-24/MOC-00052. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan sorkuntza artistikoaren prozesuetan Adimen Artifizialaren gaineko hausnarketarako eta eztabaidarako guneak sor ditzan. Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-24/MOC-00053. Mozioa, zeinaren bidez berretsi egiten baitira Hizkuntza Gutxituen Europako Itunaren helburuak eta 7.2 artikulua, hizkuntza horien aldeko neurri bereziak hartze aldera. EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (7. or.).
- 11-24/MOC-00054. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan behin-behinekotasuna murriztu eta bertan sartzeko eta lanpostuak betetzeko prozesuak azkar ditzan. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-24/MOC-00055. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gerra Zibilean eta frankismoan biktima izandakoen eta errepresaliatuen “Oroibidea” datu-basean sar ditzan Errepublikako agintarien kontrolpeko lurraldean eraildakoak eta errepresaliatutakoak. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-23/PES-00244. Galdera, Petilla Aragoïn zuntz optikoa ez hedatu izanaren arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- 11-23/PES-00245. Galdera, Kohesiorako-Banda Zabalerako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko Programaren laguntzen onuradun izan behar ziren 115 udalerrien egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-23/PES-00246. Galdera, Osasunbidea-NOZen emakumeen genitalen mutilazioaren inguruko berariazko prestakuntza emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-23/PES-00247. Galdera, ijito migratzaileak Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko programan sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-23/PES-00248. Galdera, patologia neurologikoak dituzten pazienteak elkarte pribatuetara bideratzeko irizpide edo protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-23/PES-00249. Galdera, kirola eta desgaitasuna babesteko 2022an eta 2023an sustatutako ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-23/PES-00250. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak GAN-NIKeko zuzendari-kudeatzailea kargutik kentzeko eta beste pertsona bat izendatzeko jarraitutako irizpide teknikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-23/PES-00251. Galdera, Gobernu Irekiaren webguneari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00012 eta 13 eta 11-24/ELC-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako izendatu behar dituen kideak hautatzea. Hautagaitzak aldarrikatzea (24. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-24/MOC-00050. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita bere kirol plangintzan sar dezan osasun mentalerako arreta- ren ikuspegia, kirol arloko profesionali zuzentzen dizkien ekintzetan**

### *IBAI CRESPO LUNA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita bere kirol plangintzan sar dezan osasun mentalerako arretaren ikuspegia, kirol arloko profesionali zuzentzen dizkien ekintzetan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, kirolaren eta jarduera fisikoaren arlotik osasun mentalaren nahasmenduak prebenitzera premia-tzen duen honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak eginen du mozioaren jarraipena.

Zioen azalpena

Osasun mentala pertsonen osasun globalaren funtsezko osagai bat da eta duen garrantzia nahasmendu mentalak agertze hutsetik harago iristen da. Estresak, antsietateak eta beste arazo emozional batzuk gero eta eragin handiagoa dute gure gizartean, bereziki gazteengan. Horregatik,

derrigorrezkoa da neurri proaktiboak eta prebentziozkoak hartzea, ongizate emozionala adin txikitik sustatzeko eta herritarrei behar diren tresnak emateko bizitzan zehar agertuko zaizkien erronka emozionalari aurre egin ahal izateko.

Ikerketa zientifiko askok erakutsi dutenez jarduera fisikoa eta kirola modu erregularrean egiteak onura fisiko agerikoez gain, esate baterako egoera kardiobaskularra hobetzea eta gaixotasun kronikoen arriskua murriztea, osasun mentalean ere eragin esanguratsua du. Ariketa fisikoak endorfinak –ongizatearen sentazioarekin lotutako neurotransmisorek– askatzen ditu, eta estresaren hormona den kortisolaren maila jaisten du. Gainera, kirolak eta jarduera fisikoak talde-lana, sozializazioa eta autoestimua sustatzen dute, eta alderdi horiek funtsezkoak dira gazteen bilakaera integralerako, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak helburu dituen balio eta estrategiak.

Berriki, saskibaloiko jokalaria Ricky Rubiok iragarri du NBA utzi behar duela, bai eta saskibaloiko lehen lerroa ere, bere osasun mentala artatzeko, agerian utziz helduen arloan, profesionalen eta kirolarien artean ere osasun mentala kontuan hartu behar dela.

Hezkuntzaren arloa agertoki paregabea da osasun mentala adin txikitatik sustatzeko kirolaren eta jarduera fisikoaren bidez.

Hezkuntza-eremuak ez dira soilik irakaskuntza akademikorako, prestakuntza integralerako eremuak ere badira, non eratzen baitira bertan parte hartzen dutenen balioak, jarrerak eta bizi-ohiturak. Eremu horiek tresnak eskain ditzakete erronka akademiko, pertsonal eta sozialei aurre egiteko erresilientzia eta autokonfiantza handiagorekin, eta bidez batez lagundu ikasleen ongizate emozionalari, kirolaren eta jarduera fisikoaren bitartez.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bere kirol plangintzan sar dezan, ekintza zehatzekin, osasun mentalerako arretaren ikuspegia, kirol arloko profesionalei zuzentzen dizkien ekintzetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, kirol komunitateari zuzendutako sentsibilizazio- eta heziketa-kanpainak bultzatuz, kirolak eta jarduera fisikoak osasun mentalaren eta ongizate emozionalaren sustapenean duten garrantziari buruz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Jarduera fisikoaren eta kirolaren Plan estrategikoan osasun mentalaren arretari buruzko atal bat sar dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, gazteenei zuzendutako kirol programazioan, esate baterako kirol jokoetan, sar ditzan osasun mentalaren garrantzia eta arretarako baliabideak.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, jarrai dezan modu deszentralizatuan garatzen Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak sustatutako kirol errezetaren proiektuak Osasun Departamentuarekin elkarlanean, osasun mentalaren nahasmenak prebenitzeko zerbitzu gisa eta osasunaren zaintzaren arloan kirolak eta jarduera fisikoak duten balioa nabarmentzeko.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

## **11-24/MOC-00051. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan itxarote-zerrendak murrizteko plan integral bat aurkez dezan, bere barne hartuta egiturazko neurriak abiaraztea**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan itxarote-zerrendak murrizteko plan integral bat aurkez dezan, bere barne hartuta egiturazko neurriak abiaraztea.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Itxaron-zerrendak Nafarroan inoizko handienak dira. Gaur egun, 66.612 pertsona daude espezialistarekin lehen hitzordu baten zain; 8.757 pertsona ebakuntza kirurgiko baten zain, eta 24.561 proba diagnostiko baten zain. Gainera, errebisiorako kontsulten itxaron-denborak handitu egin dira azken hilabeteetan.

Autonomia-erkidegoetako itxaron-zerrendei dagokienez Osasun Ministerioak egiten duen aldizkako azken alderaketan, Nafarroa 5 kaskarren artean dago espezialistarekin lehen hitzordu bat izateko itxaron-zerrendaz bezainbatean, eta sailkapenaren erdian ebakuntza kirurgiko baterako itxaron-zerrendaz bezainbatean.

Legegintzaldiaren hasieratik, duela 7 hilabete, Osasun Departamentuak ezagutzera eman ditu abian jarritako epe motz, ertain eta luzeko ekin-tzak, egoera onbideratu eta itxaron-zerrenda

horiek hobetzeko xedez. Ezagutzera eman diren epe laburreko neurriak hauexek izan dira: lehenik eta behin, egiaztatzea jarduera arrunta egokia izan den, eta, behar izanez gero, hura indartzeko kontratazio gehiago egitea; produktibitate-orduetara jotzea ohiko jardueratik haratago jarduera areagotzeko; eta, azkenik, osasun publikoan artatu ezin diren pertsonak osasun pribatura bideratzea.

Zoritxarrez, neurri horiek ezarri eta sei hilabetera, datuek erakusten dute ez dituztela lortu espero ziren emaitzak, ez baita lortu itxaronzerrendak murriztea, hainbat baliabide ekonomiko inbertitu arren hala produktibitatean nola osasun pribaturako deribazioetan.

Osasun arreta espezializatua lortzeko itxaronaldia Nafarroako osasun sistemaren arazo nagusietako bat da, eta eragin negatiboa du gure Foru Komunitateko herritarrengan. Ezin da alde batera utzi Nafarroan osasunean egiten den inbertsioa –gure Foru Komunitateko aurrekontuaren lau eurotatik bat osasunera bideratzen da– garrantzi

handikoa dela, horrelako arazo bati aurre egiteko eskura ditugun baliabide guztiak erabiltzea eta horren bilakaera herritarrentzat ahalik eta gardena izatea ahalbidetzeko adina.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Hiru hilabeteko epean Nafarroan itxaronzerrendak murrizteko plan integral bat aurkeztean, egiturazko neurriak ekarriko dituen.

2. Planeko ekintzak eta itxaronzerrenden bilakaeraren emaitzak monitorizatzen lagunduko duten adierazleen multzo bat ezartzea.

3. Osasun Departamentuan argitara ditzan, herritar guztientzat modu irekian, plana eta adierazle horien hileroko emaitzak.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## **11-24/MOC-00052. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan sorkuntza artistikoaren prozesuetan Adimen Artifizialaren gaineko hausnarketarako eta eztabaidarako guneak sor ditzan**

### ***IBAI CRESPO LUNA JAUNAK AURKEZTU DU***

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan sorkuntza artistikoaren prozesuetan Adimen Artifizialaren gaineko hausnarketarako eta eztabaidarako guneak sor ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroan sorkuntza artistikoaren prozesuetan Adimen Artifizialaren gaineko hausnarketarako eta eztabaidarako guneak sortzera premiatzen duen honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak egingen du mozioaren jarraipena.

Zioen azalpena

Adimen Artifiziala artearen eremuan erabiltzea, sormena eta kultur adierazpena aberasteko duen ahalmena aitortuta artisautza- eta sormen-lan tradizionalaren balioari kalte egin gabe, tresna berri-tzailea da, zeina artistek eta sortzaileek balia baitezakete adierazpen-modu berriak esploratzeko eta beren lanak konplexutasun eta originaltasun handiagoko maila batera eramateko.

Gaur egun bizi dugun aro digitalean, Adimen Artifizialak erakutsi du gai dela hainbat diziplinatan datu-bolumen handiak aztertzeke, patrioiak identifikatzeko eta sormenezko edukia sortzeko.

Hala ere, funtsezkoa da ulertzea Adimen Artifizialak ezin duela ordeztu artisten sormen prozesua eta baliagarria izan daitekeela sormen prozesu hori indartu eta aberastu dezakeen tresna osagarri gisa.

Ildo horretan, beharrezkoa da ikuspegi integratzaile eta errespetuzkoa sustatzea, non Adimen Artifiziala eta artisau-lan sortzailea modu harmoniatsuan batera existitu ahal izanzen diren, artearen munduko ikuspegi eta perspektiben aniztasuna aitortuta eta baloratuta.

Garrantzitsua da nabarmentzea giza sormena oraindik ere ordezkazina dela eta Adimen Artifizialak berak bakarrik ezin dituela giza esperientzia guztiak atzeman, ezta gizakiek sortutako artelanean aurkitzen diren sakontasun emozionala eta esanahi kulturala errepikatu ere.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Adimen Artifizialak artearen esparruan duen egitekoari buruzko hausnar-

ketarako eta elkarrizketarako gune bat bultzatzea sorkuntza artistikoaren, arte plastikoaren, musikaren eta literaturaren sektorearen esparruko profesionalekin batera Nafarroan arte-prozesuetan Adimen Artifiziala erabiltzeko araudi bat garatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du artearen esparruan Adimen Artifizialaren erabilera arduratsua eta etikoa sustatzen duten ekimenak bultzatzea, bermatuz teknologia hori sormena eta berrikuntza sustatzeko tresna gisa erabiliko dela, artisau- eta sortze-lan tradizionalari kalterik eragin gabe.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du artista, zientzialari, teknologo eta beste profesional batzuen arteko lankidetzat bultzatzea, Adimen Artifiziala modu sortzailean eta aniztasun kulturala eta ondare artistikoa errespetatuz integratuko duten proiektuak garatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrai dezan lan eta lehiaketa publikoetan Adimen Artifizialaren erabilera prebenitzeari buruzko gomendioak egiten.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

## **11-24/MOC-00053. Mozioa, zeinaren bidez berretsi egiten baitira Hizkuntza Gutxituen Europako Itunaren helburuak eta 7.2 artikulua, hizkuntza horien aldeko neurri bereziak hartze aldera**

*EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez berretsi egiten baitira Hizkuntza Gutxituen Europako Itunaren helburuak eta 7.2 artikulua, hizkuntza horien aldeko neurri bereziak hartze aldera.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea 1986ko abenduaren 15ean onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak. Legeak Nafarroan euskararen erabilera arautzen du, eta gaztelaniarekin batera hizkuntza ofiziala dela ezartzen du.

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) taxututako Munduan Arriskuan dauden Hizkuntzen Atlasaren arabera –1996an argitaratu zen lehenbiziko aldiz, eta aldian behin eguneratzen da–, munduan 6.700 hizkuntza inguru hitz egiten dira gaur egun, eta horietatik 2.500 daude desagertzeko zorian. Horietako asko abiada kezkarrian ari dira desagertzen. Uste denez, 500 hizkuntza baino gehiago "egoera kritikoan" daude, beste 500 baino gehiago "arrisku larrian" daude, eta 600 baino gehiago daude, berriz, "egoera zaurgar-

rian". Atlasean jasotako datuen arabera, 50eko hamarkadatik hona 230 hizkuntza inguru desagertu dira, eta munduan arriskuan dauden 2.500dik gorako hizkuntzen artean egonen litzateke euskara, "zaugarrien" kategorian hain zuzen ere, esparru jakin batzuetara mugatuta dagoelako.

Bestalde, 2023ko martxoan 25 urte bete ziren Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna (Eurokarta) indarrean sartu zenetik. Gutuna nazioarteko hitzarmen bat da, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak konbentzio mailarekin onetsi zuena 1992ko ekainaren 25ean, Europako eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko xedez. Hitzarmena berretsi zuten 25 estatuak modu aktiboan sustatu behar dute hizkuntza horiek esparru ezberdinetan erabil daitezela. Espainiako estatuak 1992ko azaroaren 5ean sinatu zuen gutun hori (orduan PSOE zegoen gobernuan), eta 2001eko apirilaren 9an berretsi zuen (orduan PP zegoen gobernuan). Gutunaren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat, hura sinatu zuten estatuak Europako Kontseiluarentzako ebaluazioak egin behar dituzte aldianaldian (3 urtean behin), Gutunean jasotzen diren gomendioen aplikazioa dela-eta.

Urtarrilaren erdialdean, Europako Kontseiluko Aduituen Batzordeko kideak bisitan izan dira Nafarroan, Gutuna 2017tik 2021era bitarte izan duen aplikazioa ebaluatzeko, eta, horretarako, bilerak egin dituzte euskararekin hainbat esparrutan erlazioatutako erakundeekin eta entitateekin. Batzordeak egindako balorazioa Europako Kontseiluak geroago egingen duen seigarren txostenean baloratu eta jasoko da. Eta, jakina denez, Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutunak kontrol-mekanismo bat ezartzen du ebaluatzeko ea Gutuna estatuetan nola aplikatzen ari den.

Zoritzarrez, euskara alderdien arteko liskararako eta ika-mikarako baliatzen ari da azkenaldian. Horrek ez dio euskararen normalizazioari ezertan ere laguntzen, eta adostasunak bilatu beharra dago gure hizkuntza-ondarea zaintzeko. Hizkuntzaaniztasunak ardatz garrantzitsua izan behar du nafarren elkarbizitzarako, gure gizarte-nahiz kultura-aniztasunaren isla izan behar du. Euskara nafar guztien ondarea da, euskaraz egi-



ten dutenena nahiz euskaraz egiten ez dutenena. Horregatik guztiagatik, batzuen nahiz besteen eskubideak errespetatu beharra dago. Erakundeek eta gizarte-eragileek sustatutako elementu egituratzailea izan behar du euskarak, hainbat esparrutatik balioan jarri eta sustatu beharrekoa, gure foru-erkidegoan hizkuntza-eskubideak errespetatu daitezten. Nafarroako Parlamentuaren ardurara da, herritarren ordezkari-organogorena den aldetik, mezu positiboa eta kontsentsuzkoa helaraztea Nafarroako gizarteari.

Horregatik guztiarengatik aurkezten dugu ondoko erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten ditu Eskualdeetako eta Ereku Urriko Hizkuntzen Euro-

pako Gutunean ezarritako helburuak, baita 7.2 artikuluan ezarritako honako printzipio hau ere: "eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez da hartuko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen aurkako diskriminazio ekintzat, neurrian helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainontzeko herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada".

Iruñan, 2024ko apirilaren 10ean

Foru parlamentariak: Carlos Guzmán Perez, María Roncesvalles Solana Arana, Eneka Maiz Ulaia

## **11-24/MOC-00054. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan behin-behinekotasuna murriztu eta bertan sartzeko eta lanpostuak betetzeko prozesuak azkar ditzan**

### *DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan behin-behinekotasuna murriztu eta bertan sartzeko eta lanpostuak betetzeko prozesuak azkar ditzan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako

Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

#### **Zioen azalpena**

Osasun Departamentuko erakunde autonomoa den Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak foru-administrazio osoko behin-behinekotasun tasa handiena du eta, ziur aski, osasun zerbitzu publikoetan okerrena. Prekarietatea areagotu egin da denboran zehar, maila onartezineraino, % 60ko behin-behinekotasuna gaindituta.

Lanpostuak egonkortzeko prozesua lotuta dago Europako epaiekin, zeinek zigortzen baitzuten aldi baterako kontratazioaren abusua eta exijitzen zuten egonkortasuna eta finkotasuna ematea administrazioaren jardunari berez dagozkion lanpostuei. Prozesuari esker Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak finkotasuna eman ahalko dio metatutako behin-behinekotasunaren heren bati. Aldi baterako betetzen diren lanpostuen gainerako bi herenak ez dira finko bihurtuko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko erregelamenduetan, 347/1993 Foru Dekretuetan, eta hura garatzeko foru aginduek ez dute lagundu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan behin-behinekotasuna murrizten, kontrakoa baizik.



Sartzeko prozedura soberan motela eta konplexua da eta deialdien ebazpena betikotzen da, urteetan luzatzeraino. Baremoen gaineko foru aginduak garatu eta bideratu dira lortze aldera oker ulertutako meritokrazia eta bikaintasuna, benetan hautabideetan lehiatzeko puntuak merkaturatzea eta erostea dena.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 2025erako lan publikoaren eskaintzan jaso daitezen egonkortze prozesuan hutsik geratu diren lanpostu guztiak, horrela jasotzen baita uztaillaren 1eko Foru Legean, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurri buruzkoan,

bosgarren xedapen gehigarrian, eta halaber jaso daitezen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egiturazko lanpostu hutsak, behin-behinekotasuna % 8ra murrizteko helburuarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu, sei hilabeteko epean langileen ordezkariekin negoziatzean aldaketa bat egitea 347/1993 Foru Dekretuan eta garatzeko foru aginduetan, ONOZen sartzeari eta lanpostuak betetzeari buruzkoetan, honako helburu hauekin: hautaprosesuak arintzea ebazteko denborak murriztuz, lanpostu betegaitzetan emandako denbora baloratzea eta haiek definitzea, merezimenduen baremazioa sinplifikatzea eta jendea Nafarroako bi hizkuntzetan artatzea lehentasuneko helburu gisa bermatzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

## **11-24/MOC-00055. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gerra Zibilean eta frankismoan biktima izandakoen eta errepresaliatuen “Oroibidea” datu-basean sar ditzan Errepublikako agintarien kontrolpeko lurraldean eraildakoak eta errepresaliatutakoak**

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gerra Zibilean eta frankismoan biktima izandakoen eta errepresaliatuen “Oroibidea” datu-basean sar ditzan Errepublikako agintarien kontrolpeko lurraldean eraildakoak eta errepresaliatutakoak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Oroibidea”- Gerra Zibilean eta frankismoan biktima izandakoen eta errepresaliatuen datu-basean sar ditzan Errepublikako agintarien kontrolpeko lurraldean eraildakoak eta errepresaliatutakoak.

Zioen azalpena

Berriki, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak abian jarri du Oroibidea, Gerra Zibilari eta frankismoari buruzko artxibo digital bat. Web orriak badu tresna bat, gerran eta ondorengo diktadura frankistan biktima izandako 23.000tik gora nafarren datueta-

ra iristeko, errepresio-ekintza Nafarroan zein Nafarroatik kanpo gertatu.

Zalantzarik gabe, tresna hori oso baliagarria da bermatu ahal izateko “biktinek eta haien familiak duten egiarako eskubidea; eta, halaber, herritarren eskubidea, gizartearen eskubidea, ezagutu ahal izateko iragar izugarri bate egia guztiz anker, 1936ko uztailen hasi eta diktadurako 40 urtean zehar luzatu zena”, kontseilariak bere aurkezpenean adierazi zuen bezala.

Hala ere, Oroibideak bazter uzten ditu sistematikoki Errepublikak kontrolatutako lurraldean errepresioa jasan zuten nafar guztiak.

Ez dago inolako aitzakiarik bazterketa horretarako, Memoria Demokratikoari buruzko 20/2022 Legeak, hirugarren artikuluan, honako hauek definitzen dituelako biktima gisa: “Kontzientzia edo erlijio-sinesmeneko arrazoiengatik jazarpenera edo indarkeria jasandako pertsonak, bai eta masoneariaren edo sozietate teosofikoen eta antzekoen kide izateagatik errepresaliatutako edo jazarritako pertsonak ere”; beraz, ez ditu bazter uzten indar

errepublikarrek eta haien aliatuek eragindako biktimak. Horiek horrela, beharrezkoa da zuzentzea hutsune hori zeinak, logikok, iraindu egiten baititu biktima horien senideak, beren familiakoek jasandako abusu eta indarkeria bidegabeak ikusezin bihurtzen dituelako.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Oroibidea datu-basean sar ditzan Errepublikako gobernu legitimoak kontrolatutako lurraldean beren eskubide oinarritzkoen urraketen biktima izandako nafarrak.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna agertzen die Gerra Zibilean eta frankismoan kontzientzia edo erlijio-sinesmeneko arrazoiengatik jazarpen politikoaren biktima izandako guztien senideei eta salatu egiten du aipatu jazarpenaren izaera bidegabe eta ilegítimoa.

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-23/PES-00244. Galdera, Petilla Aragoi zuntz optikoa ez hedatu izanaren arrazoiei buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Petilla Aragoi zuntz optikoa ez hedatu izanaren arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Petilla Aragoi zuntz optikoa ez zabaltzeko arrazoiei buruz (11-23/PES-00244). Hona Nafarro-

ako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Dakizun bezala, Petilla Aragoi Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-uharte bat da. Petilla Aragoi Aragoiko lurraldeak inguratzen du eta, egoera geografiko horren ondorioz, zailagoa da herrira zuntz optikoa iristea.

Nafarroako Gobernuak etengabe egiten du lan agente guztiarekin gure lurraldeko herri guztiak konektatuta daudela bermatzeko.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako udalerrri hori dagoeneko irrati maiztasunaz konektatuta dago.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 31n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

---

**11-23/PES-00245. Galdera, Kohesiorako-Banda Zabalerako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko Programaren laguntzen onuradun izan behar ziren 115 udalerrien egoerari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Kohesiorako-Banda Zabalerako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko Programaren laguntzen onuradun izan behar ziren 115 udalerrien egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2021eko Banda Zabala - Kohesiorako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko Programaren (ÚNICO - Banda Zabala) laguntzaren onuradun izanen ziren 115 udalerrien egoerari buruz (11-23/PES-00245). Hona Nafarroako Gobernu Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Idatziz erantzuteko galderan aipatzen duzun prentsa oharrean jakinarazten zenez, laguntza horiek Banda Zabala - Kohesiorako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko Programaren (UNICO21) barruan zeuden eta antzinako Ekonomia Galetarako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioari Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak eman zuen.

Nafarroa lankidetzan ari da Ministerioarekin jarduketa horiek arlo digitalean gauzatzen laguntzeko. Hala ere, ongi dakizuenez, Nafarroako Gobernuak ez du eskumenik Gobernu Zentralak emandako laguntzetan.

Dena den, zure galderan aipatzen diren udalerrien egoera zehatza jakin nahi izanez gero, bai eta Foru Komunitateko beste udalerrri guztien egoera zehatza ere, informazio hori esteka honen bidez eskura dezakezu: <https://bandaancha.nafarroa.es/eu/>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 31n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

## 11-23/PES-00246. Galdera, Osasunbidea-NOZen emakumeen genitalen mutilazioaren inguruko berriazko prestakuntza emateari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Osasunbidea-NOZen emakumeen genitalen mutilazioaren inguruko berriazko prestakuntza emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du emakumeen mutilazio genitalari buruz (11-23/PES-00246). Hona galdera eta Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak berriazko zer prestakuntza garatzen du emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko?

NOZek emakumeen mutilazio genitalaren inguruko prestakuntza ematen du Munduko Medikuek erakundearen bidez, NABIK erakunde horrekin eta xede horretarako izenpetua duen hitzarmen baten bitartez. Xede du Nafarroan bizi diren afrikarren artean emakumeen mutilazio genitalerako arriskua prebenitzea, herritarrak orokorrean sensibilizatzea eta langileei prestakuntza ematea Nafarroan emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta aurka egiteko protokoloa ezartzearen bitartez.

Munduko Medikuek Nafarroa erakundeak sexu- eta ugalketa-osasunean prestakuntza duten bitartekari migratzaileak ditu, eta, osasuneko eragile diren aldetik, urteotan zehar zenbait jarduera antolatu dituzte emakume migratzaileen osasun laguntza hobetzeko, beren harrerako ingurunean gizarteratzeko eta gurean gizarteratzeak berekin dakartzan aurrejuzgua eta genero desberdinkeria murrizteko.

Duela urte batzuk, Munduko Medikuek erakundeak prestakuntza saioak ematen hasi zen Oinarrizko Osasun Laguntzako langileei (medikuntza, pediatria, erizaintza eta gizarte lana), bai eta ginekologiako eta obstetriziako langileei ere (sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroak eta ospitaleak). Saioek ordubete eta erdi eta bi ordu arteko iraupena izaten dute.

Prestakuntza horietan honako gai hauek jorrazten dira:

- Emakumeen mutilazio genitalaren ondorioak, motak, ezaugarriak eta kontzeptua bera ulertzea, baita munduan duen prebalentzia eta banaketa geografikoa ere.

- Emakumeen mutilazio genitalaren kultur- eta gizarte-testuingurua eta hori egiteak berarekin dakartzan arazoak ulertzea.

- Nafarroan emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta horren arreta integralerako dauden tresnak eta baliabideak ezagutzeko.

- Emakumeen mutilazio genitalen kasu baten edota arrisku egoera baten aurrean esku hartzeko beharrezkoak diren trebetasunak eta ezagutzak lortzea.

- Emakumeen mutilazio genitalaren lege esparrua (tokiko eta nazioarteko legeak).

- Nafarroan emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta aurka egiteko esparru koordinatu bat ezartzea.

- Osasun, hezkuntza eta gizarte arloko langileei emakumeen mutilazio genitalari buruzko oinarrizko ezagutzak eskaintzea, baita horren jarraipena egiteko, horren arretarako eta hura prebenitzeko protokolizatutako jarraibideak eskaintzea ere.

Nafarroan badago emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta aurka egiteko protokoloa; emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinazioan aritzeko erakundeen arteko III. Akordioan egin zen. Protokoloa eskuragarri dute langileek Auzolanen, osasuneko intranetean.

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zenbat profesionalak —Oinarrizko Osasun-laguntzakoak nahiz Laguntza Espezializatukoak edo Osasun Mentalekoak— jaso dute prestakuntza azken hiru urteotan?

2013an onetsitako Nafarroan emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta aurka egiteko protokoloan osasun arloko langileentzat prestakuntza espezializatua jasotzen da, hain zuzen ere, Oinarrizko Osasun Laguntzan, emaku-

meari laguntzeko zentroan, ospitale larrialdietan, Nafarroako Ospitaleguneko pediatriako eta ginekologiako zerbitzuan lan egiten dutenentzat.

2018tik, NABIk Munduko Medikuek erakundearekin, Nafarroan emakumeen mutilazio genitalaren aurka egiten duen erreferentziako erakundearekin, urtero hitzarmen bat sinatzen du genero eta giza eskubideen ikuspegitik eta neskatoak eta emakumeak jartzen ditu beti erdigunean. Munduko Medikuek erakundeak kulturarteko bitartekaritzaaren apustua egiten du neskato eta emakumeengana hurreratzeko forma eraginkor gisa, eta bitartekarien, euren erkidegoetan buruak diren Afrikako emakumeen, rola indartzen du eta biztanleak, oro har, sensibilizatzen ditu.

NABIk eta Munduko Medikuek erakundeak sinatutako hitzarmenean profesionalentzako prestakuntzari zuzendutako jarduerak jasotzen dira, emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta horri aurre egiteko. Esparru horretan, adierazi behar da NABIk prestakuntza horiek sustatzeko lan egin duela, jada egiten ez zirelako. Kontua da, 2021ean, NABIk eta Munduko Medikuek erakundeak sinatutako hitzarmenean gizarte arloko, osasuneko eta hezkuntzako langileei sensibilizatzeko eta prestatzeko asmoa zegoen arren, erakundeak ez ziela inolako prestakuntzarik eman osasuneko langileei, eta adierazi zuen prestakuntza emateaz arduratzen ziren langileekin barne mailako arazok izan zirela, eta saioak ezartzeko zailtasunak ere izan zirela.

2022an, osasun arloan bi prestakuntza egin ziren:

- Irailaren 14an, Noingo Osasun Etxean, hamazazpi langileri.

- Azaroaren 9an, Tuterako Reina Sofia Ospitalean, hogeitazpi langileri (hamaseik aurrez aurre parte hartu zuten eta lauk streaming bidez).

2022ko irailaren 27an, NABIk bilera bat egin zuen eta honako hauek deitu zituen: Munduko Medikuek erakundeak, erakundeen arteko III. akordioaren Jarraipen Batzordeko Osasun Departamentuaren ordezkaria eta Indarkeriaren Ekintza Planaren Batzorde Teknikoko Osasun Departamentuaren ordezkaria. Bertan hau hitzartu zen: NABIk bilerara bertaratu zirenei emakumeen mutilazio genitalen protokoloa bidaltzea, bai eta foru araudia eta prestakuntzei buruzko azalpen labur bat ere. Gainera, ezarri zen prestakuntza saioak Osasun Departamentuko NABIren berdintasuneko teknikariak bideratuko zituela.

Bultzada horri esker, 2023an, NABIk eta Munduko Medikuek erakundeak egindako hi-

tzarmenean honako prestakuntza hauek jaso ziren:

– Urtarrilaren 11n, Bideko Ama Birjina Ospitalean. Hamazazpi langile bertaratu ziren, horietatik hamabi emakumeak ziren eta bost gizonak.

– Maiatzaren 8an, Erizaintza Eskolan. Erizaintzako hamazazpi ikasle bertaratu ziren, denak emakumeak.

– Maiatzaren 17an, Buztintxuriko Osasun Etxean. Hamazortzi langile bertaratu ziren, horietatik hamasei emakumeak ziren eta bi gizonak.

– Maiatzaren 17an, Sarrigureneko Osasun Etxean. Hamazortzi langile bertaratu ziren, horietatik hamazazpi emakumeak ziren eta bakarra gizona.

– Maiatzaren 25ean, Villatuertako Osasun Etxean. Hamahiru langile bertaratu ziren, horietatik hamar emakumeak ziren eta hiru gizonak.

– Maiatzaren 25ean, Larragako Osasun Etxean. Hamaika langile bertaratu ziren, horietatik hamar emakumeak ziren eta bakarra gizona.

– Ekainaren 1ean, Alde Zaharreko Osasun Etxean. Hamazortzi langile bertaratu ziren, horietatik hamabost emakumeak ziren eta hiru gizonak.

– Ekainaren 8an, Burlatako Osasun Etxean. 30 langile bertaratu ziren, horietatik 27 emakumeak ziren eta hiru gizonak.

– Ekainaren 20an, Iturramako Osasun Etxean. 24 langile bertaratu ziren, horietatik 22 emakumeak ziren eta bi gizonak.

– Ekainaren 22an, Lizarrako Osasun Etxean. 16 langile bertaratu ziren, horietatik 14 emakumeak ziren eta bi gizonak.

– Ekainaren 15ean, San Juaneko Osasun Etxean. 24 langile bertaratu ziren, horietatik 22 emakumeak ziren eta bi gizonak.

– Irailaren 21ean, Altsasuko Osasun Etxean. Hamaika langile bertaratu ziren, denak emakumeak.

– Urriaren 4an, La Milagrosako Osasun Etxean. Hamasei langile bertaratu ziren, denak emakumeak. Zortzi erizain, sei familiako medikuntzakoak eta bi gizarte langile.

– Urriaren 5ean, Azkoiengo Osasun Etxean. 12 langile bertaratu ziren, horietatik 10 emakumeak ziren eta bi gizonak.

3. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zer aurreikuspen darabil gogoan 2024rako, emakumeen mutilazio genitalaren arloko prestakuntzari dagokionez? zenbat profesionali emanen dio prestakuntza hori?

2022. urtearen hasieran, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei Arreta Integratua emateko Lantalde Teknikoa sortu zen. Talde horren bidez, ordutik aurrera, O-NOZen, emakumeen mutilazio genitalen inguruan eta lotutako gainerako gaietan (detekzio goiztiarra, heletzea, esku hartzea, erregistroa, eta abar) egiten den emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza guztia koordinatzen da. LTTn prestakuntza espezifikoak sustatzeko beharra adostu da, baita hori Osasun Departamentuko NABlko berdintasun teknikariak bideratzea (LTTn aktiboki hartzen du parte) eta adostutakoaren araber hedatzen eta eskaintzen da berriro.

2024rako asmoa da aurreko urteetan egindako jarduketara bera errepikatzea. Urte horietan ia 300 pertsonak jaso zuten prestakuntza: hasierako eskaintza eta oroigarria, LTTko kideen bidez, bakoitzak bere laguntza eremua eta maila ordezkatzeko du, eta eskaerak berdintasuneko teknikariaren bidez bideratzea, hark eskaintzen baitu alderdien arteko lotura eta jarraipena.

Gainera, LTTak 2023an sexu indarkeriaren detekzio goiztiarraren eta laguntzaren lehentasunak landu zituen, eta honako helburu hauek ditu 2024rako: kasuen erregistroa hobetzea, jarduketak ebaluatzeko informazioa eta O-NOZeko langileentzat prestakuntza ibilbidea egitea eta planifikatzea, emakumeen mutilazio genitala sartuta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos



## 11-23/PES-00247. Galdera, ijito migratzaileak Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko programan sartzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak ijito migratzaileak Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko programan sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ijitoen komunitaterako osasunaren sustapeneko programei buruz (11-23/PES-00247). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

2020an, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak eta Gaz Kalo, La Majarí eta La Romaní ijito-elkartek Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko programa taxutu eta argitaratu zuten.

Programa hori etengabe egokitzen zaie ijitoen komunitatearen osasunari nahiz esparru tekniko eta politiko indardunei.

Ijitoen komunitatearen osasun-maila hobetzea da programaren helburu orokorra, osasunaren arloan dauden desberdinkeriak hiru esparrutan murriztuz: osasunaren arloko zerbitzuen irisgarritasuna eta erabilera, osasun maila eta osasun determinatzaileak.

Programak ijitoen komunitatea du ardatz, eta arreta berezia eskaintzen die haurrei eta zahartze osasungarriari, non eta bizi, jolastu, ikasi edo lan egiten duten tokietan, erakundeetan eta komunitateetan. Horretarako, honako estrategia hauek baliatzen ditu: ijitoen komunitatearen parte-hartze, ahalduntze eta bitartekaritza; berdinen arteko hezkuntza; ijitoen osasunaren sustatzaileak, eta profesionalentzako babesa eta prestakuntza.

Programa horrek, gure ustez, ijito autoktonoak ditu jomuga, baina Nafarroan badira jatorri migranteko beste ijito komunitate batzuk (erruma-

niarrak, batik bat) beren osasun-maila hobetu behar dutenak, eta honako arlo hauetan pairatzen dituzten desberdinkeriak murriztu: irisgarritasuna, osasun publikoko zerbitzuen laguntza-mailen gaineko ezagutza eta osasun-determinatzaileak.

Horri buruz, parlamentari honek idatziko galdera hauek egiten ditu:

– Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren "Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko" programak ijito migranteak ere hartzen al ditu?

– Ijito migranteak ez hartzeko arrazoiak.

– Nafarroan finkatutako ijito migranteen populazioa osatzen duen pertsona-kopuruari buruzko informaziorik ba al dago?

– Taxutu al da berariazko programarik ijito migrante horiek Nafarroako osasun publikoko zerbitzuak eskuratzeko dauzkaten arazoak jorrazteko? Zer zailtasunek eragotzi du?

Egindako galderei erantzuteko, informazioa eskatu zaio Eskubide Sozialetako Departamentuari, hura baita Nafarroako Ijitoen Garapenerako 2019–2022 Estrategiaren buru.

1. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren "Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko" programak ijito migranteak ere hartzen al ditu?

Osasun Departamentuak, NOPLOIren bidez, eta, zehazki, Osasuna Sustatzeko eta Politika guztietan Txertatzeko Atalaren bitartez, 1987az geroztik sustatu egin du Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko Programa.

Programa Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren Osasuneko Ekitate Programaren barruan dago. Programa hori 2022-2025eko Osasun Publikoaren eta Lanaren II. Planean kontsulta daiteke, eta Nafarroako ijitoen komunitateari dago zuzenduta, bereziki biztanle behartsuenei, eta gure erkidegoko ijitoen erakundeekin koordinatuta garatzen da. Erakunde horiek, NOPLOIren dirulaguntza baten bidez, osasunaren sustatzaile ijitoak kontratatzen dituzte Nafarroako eremuetan lan egiteko. Programa Oinarrizko Osasun Laguntzaren zuzeneko lankidetzarekin gauzatzen da, zeinak Programaren Talde Eragilean parte hartzen baitu Gaz Kaló eta La Majarí ijito erakundeekin eta NOPLOIrekin berarekin batera. Gainera,

koordinazioa dago beste departamentu batzuekin, batez ere Hezkuntzakoarekin eta Eskubide Sozialetakoarekin, azken hori Nafarroako Ijitoen Garpenerako 2019-2022 Estrategiaren arduraduna delako.

Programa hori erreferentziazko programetako bat da Espainian eta Europan, osasunari eta ijitoei buruz daudenen artean, eta ijitoen erakundeekin sarean lan egitea eta ijitoen ahalduntzea dakar. Izan duen ibilbidean zehar hainbat sari eta aintzatespen jaso ditu, hala nola Eurohealth 2004, Osasun Ministerioaren aintzatespena, Ekitatearen Kalitatearen Saria 2007 eta OMEren 2010eko jardunbide egokiaren saria.

Osasuneko hamabi sustatzaileak ijitoen komunitatekoak dira, eta horrek esan nahi du komunitateak berak aintzatesten dituela, eta beren berdinekin esku hartzea errazten da ijitoekin harreman zuzena izatearen bitartez, ijitoen komunitateko pertsona ahulenen osasuna sustatuta. Esku hartzeko metodologia honako hau da: indibiduala (premiak detektatzea, laguntza, bitartekotza, etab.), taldekoa (haurrak, helduak, emakumeak eta abar gaitzeko tailerrak) eta komunitarioa (profesionalen sareekin lan eginda, sustatzaileak dauden osasun zentroetako taldeekin lankidetzan). Osasuneko xede nagusi hauek proposatzen dira:

- Bizimodu osasungarriak sustatzea bizitzako trantsizio gutzietan.

- Osasuneko sustatzailearen irudia profesionalizatzea.

- Prestakuntza ematea Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeetako profesionali eta etorkizuneko profesionali kulturako gaitasunen inguruan.

Ijitoen osasuna sustatzeko programak ez ditu barne hartzen ijito migratzaileak.

## 2. Ijito migranteak ez hartzeko arrazoiak.

Une honetan, ijito migratzaileen egoeraren tesuingurua dela-eta, ez da gomendatzen Nafarroako ijito komunitatearen osasuna sustatzeko programan sartzea.

Alde batetik, familia eremuan, eremu pertsonalean, enpleguan, etxebizitzan, hezkuntzan, gizarte egoeran eta osasunean dagoen egoera oso desberdina da hizpide den programaren bitartez esku hartzearen xede diren Nafarroako ijitoen egoerarekin alderatuta. Egoera hori larriagotu egiten da ijito migratzaileen mugikortasunagatik, eta beste esku-hartze mota bat eskatzen du, Eskubide Sozialetako Departamenturen eta Iruñeko Udalaren arteko hitzarmena 2020tik 2023ra sinatu zenetik egin den bezala. Hitzarmen horren ondo-

rioz, indar handiko laguntzen programa bat ezartzen da, gizarteratzeko ibilbide bat egin ahal izateko. Honako hauek dira ezarritako jarduketako ildo nagusiak: enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, berdintasuna, aisia eta denbora libre.

Era berean, Nafarroako ijito migratzaileen eta Nafarroako ijito komunitatearen kultura-gakoak ez dira berberak, eta horrek zailtasunak sortuko lituzke Osasuna Sustatzeko Programaren helburuei heltzeko. Garrantzitsua da gaineratzea programa hasiera-hasieratik ijito erakundearen eta ijitoen funtsezko erreferenteen partaidetzaren oinarri sendoan funtsatu dela. Elementu hori berebizikoa da programaren esku-hartze metodologiarako, komunitateko bertako pertsonen bitartez gauzatzen baita. Pertsona horiek osasuneko eragile bihurtzen dira, eta beren komunitatearentzat erreferentzia diren ijito erakundeek laguntzen diete. Elementu horiek ez dira gaur egun Nafarroako ijito migratzaileen taldean gertatzen.

Azkenik, garrantzitsua da kontuan har dadila Nafarroako ijito komunitatea osasun arloan aurrera egiten joan dela, baina oraindik ez du lortu gainerako biztanleen osasun maila. Beraz, uste dugu ijito migratzaileak egungo Nafarroako ijito komunitatearen osasuna sustatzeko programan sartzea eragin handia izanen lukeela programaren helburuak lortzeko orduan, oso helburu desberdinak baititu egungo osasun egoera diferenteei dagokienez.

3 Nafarroan finkatutako ijito migranteen populazioa osatzen duen pertsona kopuruari buruzko informaziorik ba al dago?

Informazio hori izatea oso zaila da gaur egun, batez ere honako arrazoi hauengatik:

- Alde batetik, ijitoen gutxiengo etnikoa kontuan hartzen duen erroldarik edo erregistrorik ez dagoenez, ezinezkoa da kolektiboa kuantifikatzea. Datuak babesteko legeak eragotzi egiten du, gutxiengo etnikoa izatearen datua bereziki sentikorra delako.

- Nafarroan bizi diren atzerritar jatorriko ijitoak erromaniar jatorrikoak dira ia erabat, eta, oro har, mugikortasun handia dute, etengabe joan eta itzuli egiten direlako jatorrizko herrialdera eta herrialdeetik. Horrek, kolektiboa kuantifikatzea zailtzeaz gain, zaildu egiten du haiekin planteatzea daitezkeen gizarteratzeko ibilbideak kuantifikatzea.

- Kolektibo horri buruzko azterlan espezifikorik ez dago 2019an Iruñeko La Milagrosa auzoan zegoen erromaniar jatorriko ijitoei buruz egindako diagnostikotik harago. Auzo horretan, badirudi erromaniar jatorriko ijito kopururik handiena dagoela Nafarroan. Diagnostiko horretan honako hau

adierazten da: "SIUSSen bidez lortutako datuen arabera, auzoan etnia horretako 218 pertsona bizi dira, 26,08 urteko batez besteko adina dute, moda 3 urtekoa da eta adinak 0 urtetik 69 urtera bitartekoak" (SIUSS: Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio Sistema).

Diagnostiko horren ondoren, ez dugu jakin horri buruzko informazio eguneraturik dagoenik.

4. Taxutu al da berriazko programarik ijito migrante horiek Nafarroako osasun publikoko zerbitzuak eskuratzeko dauzkaten arazoak jorrazteko? Zer zailtasunek eragotzi du?

Nafarroako Ijitoen Garapenerako 2019-2022 Estrategiak, jarduketa ildoan artean, honako hau jasotzen zuen: "Europako beste herrialde batzuetatik etorritako ijitoak". Horren inguruko jarduketa honako honetan zehazten zen: "biztanleria hori gizarteratzeko programa pilotu integral bat sortzea, jarduketa eremua Iruñerria izanik".

Eskubide Sozietako Departamentuak, Iruñeko Udalarekin koordinatuta, erabaki zuen aipatutako pilotua abian jarri aurretik egoeraren diagnostiko bat egin behar zela, abiapuntua ezagutzeko eta jarduketa zehatzak arloka lehenetsi eta planifikatu ahal izateko. Diagnostiko hori Iruñeko La Milagrosa auzora mugatzea ere erabaki zen, auzo horrek biltzen baitzuen kolektibo gehiena (aurreko galderan aipatutako diagnostikoa).

Diagnostikoaren ondoren eta haren emaitzak aztertu ondoren, eta estrategian adierazitako neu-

ria betetzeko, La Milagrosa auzoan bertan bizi diren errumaniar jatorriko ijito familiekin gizarte- eta komunitate-arloko esku-hartze intentsiboko programa pilotu bat gauzatzea erabaki zen. Horretarako, Eskubide Sozietako Departamentuak hitzarmen bat sinatu zuen 2020an Iruñeko Udalarekin.

Hitzarmen horren ondorioz, Udalak programa hori lizitatu zuen, eta Munduko Medikuek erakunde izan zen adjudikazioduna. 2021etik 2023ra ia hiru urtez pilotatze hori egin du, lizitazioaren plegu teknikoan adierazitako baldintzetan, non osasuna sartzen den jarduketa ildoan artean, bigarren galderaren erantzunean zehazten denez.

2023. urtearen amaieran, Iruñeko Udalak eta Eskubide Sozietako Departamentuak erabaki zuten aipatutako programa pilotuaren garapena ebaluatzea. Une honetan, programaren emaitzen zain daude, eta horrek esku-hartze soziokomunitarioko planteamendu berriak ekartzen ahal ditu.

Era berean, Nafarroako ijitoentzako garapen-estrategia berri baten plangintzak eta diseinuak (aurrekoak bere gauzatze aldia amaitu du) jarduketa berriak bideratzea ekartzen ahal du atzeritar jatorriko ijitoekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-23/PES-00248. Galdera, patologia neurologikoak dituzten pazienteak elkarte pribatuetara bideratzeko irizpide edo protokoloari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak patologia neurologikoak dituzten pazienteak elkarte pribatuetara bideratzeko irizpide edo protokoloari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitartu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroan neurologiako pazienteak tratatzeko deribazioei buruz (11--23/PES-00248). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1. Zer irizpide edo protokolo erabiltzen da AEA, esklerosi anizkoitza, Parkinsona... duten pazienteak elkarte pribatuetara bideratzeko?

Neurologia Zerbitzuak ez du pazienterik deribatzen elkarte pribatuetara.

Deribazio hauek soilik egiten dira:

- Parkinsona duten eta garunaren estimulazio sakoneko (ECP) kirurgia egiteko izangai diren pazienteak, zeinen tratamendua hitzartuta baitago Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin.

- ECPa oinarri deribazioa egiteko irizpideak klinikoak dira, zeharo adostuta daude eta jardunbide klinikoki gida guztietan agertzen dira: konplikazio motor larriak dituen Parkinsonen gaixotasuna, dementziarik gabeko pazienteak eta 70 urtetik beherakoak.

2. Zer irizpide edo protokolo erabiltzen da Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Neurologian edo/eta Iktus Unitatean ospitaleratu eta errehabilitazioko tratamendua behar dutelako tratamendua –ambulatorioa nahiz ospitaleratuta– Ubarmin Klinika-NOU-Dn eta zentro itundu edo pribatuetan jarraitzen duten pazienteak bideratzeko?

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan ospitalizatutako Neurologiako pazienteen errehabilitazio protokoloa (neurologiako atalean eta beste batzuetan).

Errehabilitazioko medikuak balorazioa egiten du interkontsulta jaso eta ondorengo 24 orduen barruan (asteburuetan izan ezik, beste egun batez luzatzen baita).

Errehabilitazio plan bat antolatzeko ezinbesteko datuak:

- Konorte maila eta denboran eta espazioan orientatzeko gaitasuna

- Laguntzeko gaitasuna (aldez aurreko defizit mentalak, gaixotasun psikiatrikoak, hizkuntza oztoppa...)

- Ulertzeko gaitasuna (afasia globalak, mistoak, dementziak...)

- Aldez aurreko defizit bisual larriak (itsutasuna) nahiz hartuak (burua mugitzeko zailtasuna eragiten duten hemorragiak, hemianopsiak).

- Zentzumenetako defizitak.

- Anosognosiak.

- Balantze articularra (hausketen sekuelak, aldez aurreko atzerapen articularrak, anputazioak, haurtzaroko garuneko paralisia eta haurtzaroko beste gaixotasun batzuk, agenesiak...).

- Balantze muskularra, nola gorputz adarrak hala kontrol zefalikoa eta enborrena.

- Irensketaren alterazioa.

- Aurretiko egoera funtzionala (Barthel).

- Komorbilitatea.

Fisioterapian hasteko irizpideak:

- Pazientea laguntzeko prest dago, ez du onubilaziorik edota logalerik.

- Ez du sukarrak, ezta egoera septikorik ere.

- Ez dago mobilizatzeko kontraindikaziorik lesioaren jatorriari lotuta (karotida arteriaren estenosi larria, sintomatologia aldakorra, hemorragia handia...).

- Ez dago narriatze edota ezegonkortasun klinikorik hasiera batean immobilizatzea eskatzen duenik.

Pazienteari ebaluazioa berriz egiten zaio ikusteko aldaketarik dagoen eta tratatzeko irizpideetan sartzen den.

Ospitale barruko errehabilitazio plana, klinika neurologikoaren arabera:

- Kalte neurologiko larria duten paziente ahulekin (hemiplegia osoak edota hizkuntza alterazioak pronostiko txarreko zantzuekin), jarraibideak ematen zaizkio familiari, eta ez da fisioterapiarik erabiltzen.

- Hemiplegia larriak dituzten pazienteekin, hizkuntzaren alterazioarekin lotuta egon ala ez, tratamendua gomendatzen da kontrol zefalikoa eta enborrekoa lortzeko. Afekzioa larria bada eta eboluzionatzen ez badu, mobilizazio pasiboekin jarraitzen da atzerapen articularrak saihesteko, pazientearen adina eta balorazio orokorra kontuan hartuta. Tratamendua plantan hasi eta, eboluzioaren arabera, gimnasioan jarraitzen da fisioterapeutaren erabakiz.

- Afekzio txikiagoa duten pazienteetan (laguntzeko gaitasun ona, kontrol zefalikoa eta enborrena) zuzenean agintzen da tratamendu fisioterapiakoa gimnasioan.

- Afekzio arinak eta martxa independentea dituzten pazienteei, gainbegiratze txikia edota gainbegiratzerik ez izan, jarraibideak irakasten zaizkie eta ez dute fisioterapiarik egiten.

Errehabilitazio plana ospitaleko altaren ondoren.

NOUn ingresatutako errehabilitazioko neurologiako paziente subsidiario bati alta ematean nora joan behar duen.

1) Etxera/egoitzara itzultzea.

2) Bitarteko ingresua San Juan de Dios Ospitalean.

3) Ingresua Ubarmin klinikan errehabilitazio intentsiboa egiteko.

1.- Etxera itzultzea anbulatorioko errehabilitazioa hasteko Ubarminen, irizpide funtzionalak:

– Transferentziak egitea laguntza gutxiz.

– Zutik oreka mantentzea.

– Laguntzarekin ibili ahal izatea, lekualdatze funtzionalak egitea (komunera, sukaldara eta abarrrera joatea).

Salbuespenak irizpide soziofamiliarrengatik:

– Paziente ahula bada, narriadura klinikoa badu eta familiaren laguntzarik ez, San Juan de Diosen ospitaleratzen da.

– Etxera itzultzea eragozten duen egoera soziala egonez gero, San Juan de Diosen ospitaleratzen da.

2.- Bitarteko ingresua San Juan de Dios ospitalean, irizpide funtzionalak eta sozialak::

– Afekzio motor nabarmeneko garuneko kaltea (plegia osoa edota zentzumenetako defizit larria) eta pronostiko funtzional txarra.

– Laguntzeko nahiz ulertzeko gaitasunik eza.

– Eboluziorik ez eta pronostiko txarreko zantzuak (patologiaren arabera).

– Desgaitasun larria eta etxean moldatzeko zailtasuna.

– Gizarte Lanak eskatuta

Paziente horiek Ubarmineko errehabilitazio medikuekin kontsulta izaten dute San Juan de Diosen alta ematen zaienean, ebaluatzeko eta errehabilitazioak nondik jarraitu behar duen erabakitzeko.

3.- Ingresua Ubarmin klinikan errehabilitazio intentsiboa egiteko. Irizpideak:

1. Adina: < 70 urte gutxi gorabehera)

2. Aurretiko bizi kalitatea: Ranking eskala aldatua: < 3 (1-2)

3. Egonkortasun hemodinamikoa eta egunean 3 orduko terapia egiteko aukera ematen duen komorbilitate orokorra (bihotz-gutxiegitasun larririk

ez, kimioterapiarik ez, BGBK larririk ez, amasteko isolamendurik ez).

4. Bi hilabete baino gutxiagoko eboluzioa duen garuneko lesioa.

5. Errehabilitazio prozesuan aktiboki parte hartzeko aukera ematen duen kontzientzia egoera (pazienteak aktiboki laguntzeko gaitasuna izatea).

6. Lesio nahiz gaixotasun ez degeneratiboa + Bizitzeko pronostikoa urtebetetik gorakoa.

7. Hobetzeko arrazoizko aukerak (hobetzeko pronostiko onargarria hauen arabera: estiologia, jatorrizko lesioaren larritasuna, kaltetutako eremua eta horren tamaina, lehenengo egunetako eboluzioa eta lesioaren eboluzio denbora).

8. Errehabilitazio intentsiboa egiteko gaitasun fisikoa (egunean errehabilitazio tratamenduko 3 ordu).

9. Defizitak baloratzeko eskalak (Saguntoko Ospitaleko Eskalak jarrera aldatzearen, eserztearen eta zutik jartzearen inguruan).

10. Ubarmin klinikan ingresatuta errehabilitazio intentsiboaren baliabidera jotzeko azken erabakia Errehabilitazio Zerbitzuak hartzen du (pazientearen erreferentziazko ospitaleko errehabilitazio medikuak).

3. AEA, esklerosi anizkoitza, Parkinsona... duten zenbat paziente bideratu dira 2023an elkarte pribatuetara?

Paziente bat ere ez da deribatzen elkarte pribatuetara.

Pazienteei, tratamenduaren zati gisa, dagozkien pazienteen elkarteen berri ematen zaie (ANELA, EM Nafarroa, ANAPAR), baina ez zaie elkarte horietara bideratzen. Pazienteen elkarteen prestazioak erabat independenteak dira tratatutako premia klinikoetatik eta NOZen sisteman esku-ragarri dauden prestazioetatik, eta pazienteek eskatu eta ordaintzen dituzte.

4. Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Neurologian edo/eta Iktus Unitatean ospitaleratu eta errehabilitazioko tratamendua behar duten zenbat paziente bideratu dira zentro pribatu edo itunduetara eta zenbat artatu dira Ubarmin Klinikian, hala tratamendu anbulatorioetarako nola ospitaleratuta, 2023an?



<b>Neurologiak alta emandako iktusak, lekualdatze-ospitalea berezita 2022 eta 2023 (urt-mar)</b>			
Altaren arrazoia (deskribapena)	Lekualdatze zentroa (deskribapena)	Kasuak 2022. URTEA	Kasuak 2023. URTEA urt-mar
Borondatezko alta		1	0
Etxean		560	132
Exitus		74	10
Etxeko ospitalizazioa		2	1
Asistentzia soziosanitarioaren ostean		1	0
Beste ospitale batera lekualdatuta	SAN MIGUEL KLINIKA	1	
Beste ospitale batera lekualdatuta	SAN MILLÁN-SAN OSPITALEGUNEA	27	8
Beste ospitale batera lekualdatuta	Nafarroako Klinika Unibertsitarioa	2	1
Beste ospitale batera lekualdatuta	OSPITALEA	1	
Beste ospitale batera lekualdatuta	ANTEQUERAKO ESKUALDE OSPITALEA	1	
Beste ospitale batera lekualdatuta	Hospital del Mar	1	
Beste ospitale batera lekualdatuta	HOSPITAL DONOSTIA-DONOSTIA OSPITALEA	2	
Beste ospitale batera lekualdatuta	ERRIOXAKO OSPITALE NAGUSIA	1	
Beste ospitale batera lekualdatuta	J.M. MORALES MESEGUER OSPITALEA	1	
Beste ospitale batera lekualdatuta	REINA SOFIA OSPITALEA	27	4
Beste ospitale batera lekualdatuta	SAN JUAN DE DIOS OSPITALEA	141	41
Beste ospitale batera lekualdatuta	SAN JUAN DE DIOS OSPITALEA - Tutera	9	3
Beste ospitale batera lekualdatuta	SAN PEDRO OSPITALEA	25	4
Beste ospitale batera lekualdatuta		2	2
<b>NEUROLOGIAK GUZTIRA ALTA EMANDAKO IKTUSAK</b>		<b>879</b>	<b>206</b>

**Taula. Neurologian nahiz Errehabilitazioan ingresatutako iktus-pazienteen laburpena eta alta emateko arrazoiak.**

Alta emateko arrazoia	Lekualdatze zentroa	2022. URTEA		2023. URTEA		Kasuak, GUZTIRA	
		< 70 URT E	> 70 URTE	<70 URTE	> 70 URTE	2022	2023
Etxean		229	365	49	94	594	143
Exitus		11	76	1	10	87	11
Beste ospitale batera lekualdatuta	Beste ospitale bat	34	68	6	17	102	23
	Iruñeko San Juan de Dios Ospitalea	21	120	6	37	141	43
Asistentzia soziosanitarioaren ostean			1			1	
Etxeko ospitalizazioa		1	1	1		2	1
Borondatezko alta		2				2	
<b>Guztizko orokorra</b>						<b>929</b>	<b>221</b>



<b>Neurologian ingresatu eta Ubarmineko Errehabilitaziora bideratu diren pazienteak (alta)</b>		
	2022	2023 urt-mar
Neurologiatik Ubarmineko Errehabilitaziora	16	8

	2022 URTEKO kasuak	2023. URTEKO kasuak urt-mar
Beste ospitale batera lekualdatuta	SAN JUAN DE DIOS OSPITALEA	141 41
<b>San Juan De Dios Ospitalera eramandako pazienteetatik (141 2022an eta 38 2023ko 1. HHan), hauek izan dute kontsulta Errehabilitazioan ingresuaren alta eman osteko 3 hilabeteetan:</b>		
Errehabilitazioko zita	2022	2023 urt-mar
Erizaina	5	2
Medikua	72	19
<b>San Juan De Dios Ospitalera eramandako pazienteetatik (141 2022an eta 38 2023ko 1. HHan), ingresuan zehar interkontsulta izan dute honako hauek:</b>		
Interkontsulta errehabilitazioan	2022	2023 urt-mar
	108	34

#### Ubarminen 2022an eta 2023an tratatutako pazienteak

	2022			2023	
	saioak	pazienteak		saioak	pazienteak
Fisioterapia	14423	415		10710	328
T. Okupazionala	4180	133		2278	68
Logopeda	2947	102		1801	71

#### San Juan De Dios Ospitalean 2022an eta 2023an tratatutako pazienteak

	2022			2023	
	saioak	pazienteak		saioak	pazienteak
Fisioterapia	3508	150		5027	171
T. Okupazionala	2437	105		3418	118
Logopeda	916	49		1684	70

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 26an  
Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-23/PES-00249. Galdera, kirola eta desgaitasuna babesteko 2022an eta 2023an sustatutako ekintzei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Trigo Oubiña jaunak kirola eta desgaitasuna babesteko 2022an eta 2023an sustatutako ekintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2022 eta 2023 urteetan kirola eta desgaitasuna

na bultzatzeko Nafarroako Gobernuak sustatu dituen ekintzei buruz (11-23/PES-00249). Horren harira, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak honako honen berri ematen du:

– Galderari lotutako dokumentazioa atxikitako fitxategietan jaso da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

## 11-23/PES-00250. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak GAN-NIKeko zuzendari-kudeatzailea kargutik kentzeko eta beste pertsona bat izendatzeko jarraitutako irizpide teknikoei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak GAN-NIKeko zuzendari-kudeatzailea kargutik kentzeko eta beste pertsona bat izendatzeko jarraitutako irizpide teknikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-23/PES-00250 galdera egin du idatziz, GAN-NIK

enpresako zuzendari kudeatzailea kargutik kentzeko eta bere ordez beste pertsona bat jartzeko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak hartutako irizpide teknikoei buruz. Hona hemen galdera bera eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Ingurumen Kudeaketa (GAN-NIK) enpresako Administrazio Kontseiluak, 2023ko abenduaren 21eko saioan, honako hau onetsi zuen: organo hori berritzea eta Itziar Gómez López zuzendari kudeatzaile izendatzea. José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrenaren proposamena izan zen izendapen hori; bera batzordeburua ez ezik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria ere bada, eta GAN-NIK sozietate publiko departamentu horri dago atxikita. Izendapen hori Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (NEKParen) sozietateen Kudeaketa Zuzendari-

tzak eta Administrazio Kontseiluak berritzeko prozesuan egin zen, legegintzaldi bakoitzaren hasieran egiten denez.

Itziar Gómez aurreko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria izan zen eta bera zuzendari kudeatzaile izendatzeak Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak irekitako lan ildoari eusten dio. Horren helburua da Departamenduaren eta GAN-NIK enpresaren arteko lankidetzak lerrokatzea eta estutzea, ingurumen arloko politika sektorialen arteko kudeaketari dagokionez eta sozietate publiko horren rola erakunde instrumental gisa indartzea, gobernuaren ekintzan eta, are gehiago, irismen handiko Europako proiektuen etorkizuneko eta gaur egungo kudeaketaren ikuspuntuaren aurrean.

Halaber, Luis Sanz Azcárate lehengo zuzendari kudeatzailea zen, baina lau urteko etenaldia egin zuen; bere lanagatik GAN-NIK sozietateko Administrazio Kontseiluaren esker ona jaso eta gero, berriro ere, GAN-NIK enpresako espezialista gisa zuen aurreko funtzio profesionalera bueltatu da, eta bertan zuzendaritza talde berrian koordinazio rol garrantzitsua izanen du.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## 11-23/PES-00251. Galdera, Gobernu Irekiaren webguneari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Gobernu Irekiaren webguneari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-00251 galdera egin du idatziz erantzun dakion. Hona hemen Nafarroako Gobernuari eskatzen zaion informazioa:

– Sozietate publikoak, fundazio publikoak eta Administrazio Publikoarekin lotutako zuzenbide publikoko entitateak sortzeari edo horien funtzionamenduari buruz Nafarroako Gobernuak hartzen dituen erabakiei buruzko Gobernu Irekiaren

web-orrian argitaratutako azkena 2019-11-13koa da. Zergatik?

–Noiz gaurkotuko da informazio hori?

Argitalpenean egon den desdoinkuntza baten ondorioa da, baina konponduta dago jada. Honako esteka honetan aurki dezakezu informazio eguneratua:

[https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gardentasuna/nafarroako-gobernuaren-erabakiak-sozietate-publikoak-fundazio-publikoak-eta?body\\_value\\_1=&title=](https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gardentasuna/nafarroako-gobernuaren-erabakiak-sozietate-publikoak-fundazio-publikoak-eta?body_value_1=&title=)

Horri dagokionez, adierazi behar da Legebiltzarrak hartutako kontu ematearen konpromisoari dagokionez, badagoela aipatutako akordioen argitalpenak automatizatze prozesu bat, zeina segur aski herritarren onurarako izanen baita.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **11-23/ELC-00012 eta 13 eta 11-24/ELC-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako izendatu behar dituen kideak hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK ALDARRIKATZEA*

2024ko martxoaren 25ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kontseiluaren hiru kontseilari berri hautatzeari buruz 2023ko azaroaren 13an eta 2024ko martxoaren 11n Mahaiak hartutako erabakiekin bat, Alfredo Irujo Andueza jaunak, José Iru-retagoyena Aldaz jaunak eta María Ángeles Egus-quiza Balmaseda andreak beren agintaldia amaitu baitute, eta Nafarroako Parlamentuari dagokionez horiek proposatzea, ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Kontseiluko kontseilari izateko Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko hautagaiak aldarrikatzea. Hona hautagaiak:

– Alberto Andérez González eta Ezequiel Urdangarín Ayestarán jaunak, Iruñeko Abokatuen Elkargo Txit Prestuak proposatuta.

– Rafael Lara González jauna, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

– Ana Clara Villanueva Latorre andrea, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuta.

– Eduardo Santos Itoiz jauna, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Kontseiluari eta Iruñeko Abokatuen Elkargo Txit Prestuari jakinaraztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias